

Gazte Asanbladak Herri batzari aurkeztutako mozioa.

Orain gutxira arte Astra helburu lortezina zen, gure herriko agintariek Astra ahazteko esaten ziguten behin eta berriz. Pribatua dela, jabea daukala etab...

Gaur eta orain, Astra martxan dagoen tren geldiezina da. Tren horretako bagoiak kolore ezberdinetakoak dira, ideia, pentsakera eta asmo ezberdinekoak baina bagoi horien loturak, partehartzea, konpromisoa, gogoia, sormena eta elkartasuna bezalako baloreez eginak daude.

Agerian utzi dugu, gernikarrok ondo antolatuz gero, modu aktiboan parte hartuz gero, errealitatea aldatzeko gai garela, herritarrak agintarien jarduna baldintzatzeko kapaz garela.

Horren ondorioa da Gernikako udalak datorren maiatzaren 10ean burutuko den enkantean parte hartzeko hartu duen erabakia. Aurkitzen garen momentu historiko honetan erantzunkizunez joka dezatela espero dugu.

Hau guztia gogoan izanda, honako mozioa aurkezten zaio Udalaren herri batza honi, eztabaidatu eta egoki iritziz gero berau onesteko.

1. Gernikako gazteek zein gizarte eta kultur eragileek modu partehartzailean erabaki ahal izatea Astra zer izango den, agintarien inolako inposaketarik gabe.
2. Astrarako nahi dugun erabaki ahalmena, Gernika-Lumorako ere nahi dugulako, demokrazia partehartzailean sinisten dugulako, herritarrek parte hartzeko neurriak eta bitartekoak ezartzea eskatzen dugu.

Gernika-Lumon, 2006ko apirilaren 19an

HERRIAN BANATUTAKO TESTU BAT

Gernikar maiteok,

Maiatzaren 10ean enkantean salduko da Astrako eraikinetako bat. Udalak orain arte eraikina erosi egingo duela hitz eman du. Asmo horrek bere horretan jarraitzea gura genuke, bonbardaketa aurreko eraikin historiko hori gernikarron izan dadin.

Otsailaren 18an Gernikako hainbat gazte eraikina okupatu genuenetik ekintza ugari egin dira bertan; kontzertuak, hitzaldiak, arte tailerra, dantzaldiak, skate jaialdia, aurkezpenak, zine-emanaldiak... aurrera eramandako egitarau horretan, herriko zein kanpoko hainbat elkarte eta pertsonak parte hartu dute. Horrez gain, bertso-eskola, tai-txi eta yoga ikastaroa, perkusio-klaseak... sortu dira azken hilabeteotan. Gernikarron eta bereziki gazte askoren ekinez, eraikina eraldatzen eta atontzen ari gara. Su-armen fabrika izandakoan, bizia sortuz doa.

Gernikako leup! Gazte Asanbladak eta Iparragirre Rock elkarteak sortutako Astra GrnikEntzako ekimenak, hainbat elkarten eta pertsonen babestuta, zera eskatzen du berriro:

- Hartutako eraikina publikoa izatea.
- Erabilera soziokulturala ematea.
- Astra zer izango den eta zer nola kudeatuko den Gernikako gazteek eta elkarten sareak modu partehartzailean erabaki ahal izatea.

Astra zer izango den erabaki ahal izateko maiatzaren 20an hasi behar du "ASTRA 0 KM" prozesu partehartzaileak. 0 km-ren bitartez, gazteok nahiz Gernikako elkarten sareak dauzkagun beharrianak aztertu eta horiei Astrak zer nola erantzun diezaieken eztabaidatuko da. Dagoeneko elkarte ezberdinekin elkartzen hasi gara eta maiatzaren 20ra bitartean prozesu hori zer nola egingo den adostuko dugu guztion artean.

Zu barik ez dau. Animeu eta parte hartu. Eskerrik asko aldez aurretik,

leup gazte asanblada - ASTRA GrnikEntzako !

HERRIAN BANATUTAKO TESTU BAT (ERD)

Gernikar maiteok,

El día 10 de Mayo sale a subasta el edificio de Astra. Queremos que el ayuntamiento de Gernika mantenga su palabra dada y el edificio pase a ser un bien público.

Desde que el 18 de febrero un amplio y plural grupo de jóvenes de Gernika ocupamos el edificio, se han realizado en él numerosas actividades de las que han participado diferentes asociaciones y personas del pueblo y de fuera de él. Se han llevado a cabo conciertos, conferencias, talleres de arte, danza y se ha organizado una Bertso Eskola, grupo de Taichi, de Yoga, de percusión... Gernika y sus jóvenes ya están acondicionando y transformando el edificio. Ya es una fábrica de ideas y de cultura gestionada por jóvenes y no tan jóvenes.

La iniciativa Astra GrniKentzako, puesta en marcha por la Gazte Asanblada e Iparragirre Rock Elkartea de Gernika, apoyado por numerosas asociaciones y personas del pueblo pide una ve más que:

- El edificio de Astra pase a ser público.
- Que se le dé un uso sociocultural.
- Que cómo se gestione y qué se haga en él sea decidido a través de un proceso participativo abierto a todo el tejido asociativo y personas de Gernika. El KM0

El KM0, comenzando el 20 de mayo, pretende ser un proceso por el cual se definan las necesidades de jóvenes y tejido asociativo de Gernika en general, y se decida de qué manera puede el edificio de ASTRA contribuir a abordar dichas necesidades. Desde hoy hasta el día 20 pretendemos reunirnos con las diferentes asociaciones para diseñar conjuntamente cómo se hará dicho proceso.

Zu barik ez dau. Eskerrik asko,

Ieup gazte asanblada - ASTRA GrnikEntzako ;